

bidegileak



**Iñaki Eizmendi *Basarri* (1913-1999)**

Egilea:

**JOXEMARI IRIONDO**

## **Granadatik azken portura**

*S*nazio Eizmendi Manterola, *Basarri* bertsolaria, *Granada* deritzon baserrian jaio zen, 1913ko azaroaren 27an. Eta Zarautzen hil zen, 1999ko azaroaren 3an, laurogeita sei urte betetzear zegoela.

Gaur egun fama handiko jatetxe den *Granada* baserria Erdoizta bailaran, Errezilgo lurretan dago, Aiako mugatik oso hurbil. Eta orain kamioa ere bada-go erreka zulo batean dagoen baserri hartaraino joateko: Errezildik edo Aizarnatik Erdoizta bidea hartuta edo Aiako *Iturriotz* baserritik behera. Baina herriko plazatik bi ordu edo gehiago

beharko ziren, oinez, Basarriren mutiko-garaian, gutxienez ere.

Basarri hantxe jaio zen, baina sei urte zituenarako Azpeitiko senitarteko batzuen etxera bidali zuten, eskola pittin bat ikasteko erraztasuna izan zezan. Azpeitiko egonaldia ere hutsa iraun zuen ordea. Haien familia osoa Zarautzera aldatu baitzen urtebeteren buruan, erreka zulo hartako bizimodua go-



Iñaki Eizmendi *Basarri* (1913–1999)



Gurasoen ezkontza eguna

gor eta traketsa zela-eta familia hazi eta hezteko.

Aldakuntza handia izan zen hori Eizmendi Manterola familiarentzat, eta ozta-ozta zazpi urte besterik ez zuen mutikoarentzat, bereziki. Errezilgo mendiarteko jaiotetxea, Azpeitiko eskola-lagunak eta dena bertan behera utzi eta kostaldeko herri batera joan behar. Hori salto ikaragarria zen, zalantzarik gabe. Onerako saltoa, noski. Eta, horrexegatik-edo, bere jaiotetxeko ezaguera handi-handirik ez

zuela esan ohi zuen hark gero ere, ez zuela gogoratzen hango haurtzaroko pasadizorik. Oso umea zen artean, eta aldaketak erabat zaraustar egin zuen, behin betiko. Ez da harritzeko.

Hala ere, Basarrik inoiz ez zuen ukatu *Granada* baserrian jaio zenik. «Ordekarik, soro eta zelairik ez den menditarte hura» askotan aipatzen zuen gaztetako kontuak esaten hasten zenean, benetan maite zuen-eta. Bere burua pentsamenduz betetzen bide zi-



Granada baserrian

tzaion joan eta hango bazterrak ikusten zituen bakoitzean. Eta han bizi izan ziren bere guraso eta aurrekoak bihotza bete-betean goratzen zituen.

Basarriren gurasoak Antonio Maria Eizmendi eta Maria Frantziska Manterola ziren. Aita errezildarra, eta ama, berriz, aiarra, Urda-netakoa. Hamar seme-alaba izan eta hazi zituzten. Inazio bera zen haurrideetan zaharrena. Eta bost lehenengoak (Iñazio, Segundo, Blas, Tomas, eta Luisa) *Granadaerrek*an jaio ziren. Bost gazteenak (Paulino, Julian, Mertzedes, Garbiñe eta Manolo), *Zarauzko Azken-Portu* etxean.

### ***Bidegile eta maisu***

Bidegilearen izen eta aitormenik inork merezi badu, Basarri bertsolariak merezi du, noski. Izan ere, asko eta askorentzat bidegile, erakusle eta maisu izan zen hura, bertsolaritzan bereziki. Baita euskarazko irratigintzan edo eguneroko euskal kazetaritzan ere. Hemezortzi urte zituela hasi zen idazten, aldi behin. Eta 1935ean bertsolarien txapela jantzi zuenetik 1996 urterarte ez zen gelditu. Makina bat idatzi eta hitz egin zuen, bada.

Askotan esan ohi zuenez, *Basarri* izenordea erabiliz hasi zen orduko *Argia* astekarian.

Gero inor gutxik zekizkien haren egiazko izen-deiturak.

Gerraurre eta gerraosteko urteetan, bere auzotar Eusebio Eizmendi *Txapel* eta Akilino Izagirre *Zepai Txikiarekin*, Jose Manuel Lujanbio *Txirrita* eta garai hartako bertsolari handi guztiekin ibili zen, herriz herri. Bertsolagun eta gidari izan zen, bide batez. Eta bere garaiko bertsolaritzari duintasuna eman eta itxura eta mamiz eguneratzen ahalegindu zen buru-bihotz. Bertsolaritza taberna eta sagar-



Komunio egunean. 1924

dotegi-zuloetatik plazara eta antzokira atera, eta bertsolari zaharren artean modan zegoen hainbat hizkuntza-joera lardasbero txukundu eta dotoretu nahi izan zuen, bertsolariak ordurarte zuen nolabaiteko izen eta fama jaso eta hobetuz.

Eredu bat hartu omen zuen lantegi horretarako, behin batean esan zidanez: «Ba zan or, Gernika aldean, *Urretxindorra* esaten zioten bertsolari bat, Kepa Enbeita izenez. Eta iru-lau aldiz kantatu nuen arekin batera, Eusko Alderdi Jeltzalearen mitinetan. Aren bidea ikaragarri gustatu zitzaidan. Ura ez zan “ori mozkorra omen dek” eta “beste orren andrea alakorekin ibiltzen omen dek” eta orrelako nabarmenkeriak esaten aritzen. Gauzak zuzen eta ondo esaten zituen ark, bizkaiera ederrean eta poesi kutsuarekin. Orrela, bada, bertso-baratza pixka bat jorratzen asteko aukera ona zala pentsatu nuen. Denak etzuten ondo ikusten ori, ondoegi itz egiten nuela esaten zidaten. Baina denak edo geienak komentzitu ziran gero. Zer nai dezu?»

Badakit zuria eta beltzaren artean ñabardura eta beste kolore asko badela; eta hau ere oso eztabaidagarri izango dela, agian. Baina azken hirurogei urte honetan bertsolaritzak izan duen iraultzarik nabarmen eta handiena Basarrik ekarri zuela nago. Gaur egun bezalako bertso eskola eta hedabideen laguntasunik gabe, baina aurrerakada galanta eman zion hark bertsolaritzari.

### **Azken Portu**

Erdoiztako *Granada* baserritik Zarautzera jaitsi zirenean zerbaiti heldu beharra zeukaten familia aurrera aterako bazuten, eta *Azken Portu* baserri-taberna eta bere lurrak erosi zituen familiak. Eta hantxe hasi ziren, denak elkarri lagunduz, soro eta baratzean lana eginez. Eta ilunabarretan eta asteburuetan tabernakoak zintzo asko eginez, txanpon batzuk ateratzeko.

*Azken Portuko* etxea eta taberna hura gustuko aterpea zuen inguruko baserritar jendeak. Eta hamaika bertso eder ere entzuten zen haie-nean, Basarrik askotan esan izan zuenez. Jakineko bertsozale batzuk jaiero-jaiero hantxe biltzen omen ziren, Xenpelar, Udarregi eta beste bertsolari ezagun eta bertsojartzailerik onenen bertsoak kantatu eta, aldian behin, bat-bateko saioak egiteko. Besteak beste, Sasi aita-sembleak, Nekazabal, Exkerra igeltseroa eta abar biltzen omen ziren. Prantsez Txikia eta Gaztelu ere sarri hurbiltzen ziren, etxeko maiorazko gazte mardul hura zirikatzeke irrikitan.

Basarriren aita zenak agortu ezin ahalako bertso zahar-iturria izaten zuen. Bertsozaletasuna etxetik zetorkion, bada, gazte hari. Etxean ezagutu eta bizitzen ari zen girotik. Aitarengandik, bereziki. Behin ere ez omen zuen ikusi bat-batean bertsoan, baina bertso zahar asko zekien buruz, eta ondo kantatzen zuen, gainera.

### **Plazako lehen bertsoak**

*Azken Portuko* baserri-taberna hartan, eta lagunarteko saio askotan kantatu ondoren, Zestoako plazan egin zuen benetan bere lehenengo saioa Basarrik, hamazazpi-hemezortzi urte zituela. Jaiegun hartan Zestoara joan zen nonbait, bere lagunekin. Eta bertsolari bat bakar-bakarrik hantxe ari zen bertsoan, mitin batean. Ordizian bizi zen Erauskin Errotaria zen, hain zuzen ere. Ez bide zuen bertsoan hasteko asmorik eraman errezilarrak, baina lagunak ia! eta ia! hasi zitzaizkion zirikatzen, eta konturatu zenerako goierritarrarekin bertsoan ari zen, gorputza dar-dar geldi egon ezinik zuela. Horrelaxe, lagunek bultzata hasi zen, bultzata handiaren beharrik ez zuen izango-eta, agian. Bere burua inola lasaitu ezinda jardun omen zuen, behin batean kontatu zidanez. Eta, hala ere, bertsolari izateko erabakia hartu zuen.

Beste behin, Zarauzko *Naste-Borraste* taldea Donostiara joan zen dantza, kantu eta antzerki saioa ematera. Eta bertso batzuk kantatzera joan zedila eskatu zioten Basarri gazteari. Baita joan eta bere saioa egin ere hark, txanda etorri zitzaionean. Eta Jose Zubimendi idazleak ikusi hantxe, halabeharrez. Bertsolarien txapelketa bat antolatzeko erabakia orduantxe hartu omen zuten aipatu idazleak eta bere lagunek.



## **Gerraurreko txapelketak**

ta horrelaxe, gure bertsolaritzan nekez ahaztuko den 1935eko urtarrilaren 20.a (San Sebastian eguna) etorri zen gero. Eta behin betiko aurrerapausoa hantxe eman zuen errezildarrak, eta baita bertsolaritzak ere, bide batez.

Garai hartako bertsolari onenak Donostiako Kurasaaleko Lehenengo Bertsolari Eguneko txapelketa hartantxe bildu ziren, nor baino nor. Erdi derrigorreran eraman omen zuten saio hartara ere, bertsotarako zuen abilezia plazan neurtzen hasteko garaia zela-eta. Hogeita bat urte zituen mutilak, eta sasoi galanta. Baina ondo zekien hark txapelketan ez zela izango *Azken Portu*

tabernako edo lagun arteko konturik, eta irten edo eten egin beharko zela han, barregarri gelditu ez bazan. Horrexegatik, bada, kezkatu eta beldurtuta joan zen, eta saio hartan txapeldun izan zen, baina bererik ez zuela eman esan ohi zuen.

Askatu ezineko korapilo gaizto batek zintzurra estutzen ziola, eta izu-ikarak burua nahasten. Denek estutzen zuten, baina batez ere Txirrita handiak larritzen zuen. «Nik zer egin bear det orrelako maila duten bertsolarien ondoan?» galdetzen zion bere buruari. Baina behin baiezkoa eman zuen eta aurrera egin behar, itsu-itsuan.

Kontuak kontu, sekulako bertsozale multzoa bildu zen goiz hartan Kurtaal zaharrean. Eta lanerako garaia etorri zenean, bertsolari



bakoitzak ahal zuen dena egin zuen. Ez zen izango orain adina mikrofono eta kamara aurrealdean, saioa jasotzeko. Baina bertso-giroa ezin hobea izan zen, batere plazagizona zenarentzat. Eta bertso-saio ederra egin zuten, Basarri gazteak, bereziki. Beldur eta izuak ondo gainditu eta han bildu ziren entzuleak ahoa bete hortz utzi zituen gazteak. Egun hartako epai-mahaia osatzen zuten Jose Ariztimuño *Aitzol*, Olano, Toribio Alzaga, Manuel Lekuona eta Jose Olaizola ere horrelaxe utzi zituen, itxura denez. Eta orduko hartako txapela gazteenari eman zioten, jakina

denez. Bigarrena, Matxain senperetarrari; hirugarrena, Zepairi; laugarrena, Urnietako Alkaini. Txirrita handia, ordurarteko bertsozaleen idolo sakratua, bosgarren gelditu zen.

Une hartan inor gutxi ohartu bazen ere, gure bertso-laritzaren aro berri bat horrelaxe hasi zen, 1935eko txapelketarekin. Izan ere, Juan Mari Lekuonak idatzi zuen bezala, «Basarrik, egia da, une hartan iraultza-joera baten indarra zekarren, orduko gazte askoren joera aberrikoia. Baina bazekarren, baita ere, sozio-kultura mailako joera orokor bat, zibilizazio berriago baten eskakizuna, azken urte haue-



Omenaldia Zarauzko batzokian. Zubimendi, Aitzol, Orixe, Txomin Olano, Basarri eta Zubimendi. 1935.01.27

tako bertsolarien araupide jakina: apain jantzia, hizketa txukun eta aberatsa, errespetozko jokabidea, eskola eta garaiaren garaiko pentsamolde zehatzagoa [...]».

Lehenengo urtean halako arrakasta izan zutela-eta, handik urtebetera Bigarren Bertsolari Eguna antolatu zuten donostiarrek, 1936ko urtarrilaren 19an. Eta bigarren neurketa hura Victoria Eugenia egin, bertsozaleentzat Kurasaalean baino toki gehixeago izango zen esperantzaz. Hala ere, aretoa leporaino bete eta jende asko kanpoan gelditu zen, barruan nahiko tokirik ez-eta.

Baserrik ez zeukan bigarren lehiaketa hartan parte hartzerik, behin txapela irabaziz gero norgehiagoketatik kanpora gelditu behar baitzuen ondorengo hiru urtetan, txapelketa-ko araudiak agintzen zuenez. Aurkezle eta gai-jartzaile izan zen, Zubimendiri amaginareba hil zitzaioa-eta. Epai-mahaiko ere izan

zen, bide batez, Aitzol, Altzaga, Lekuona, Olaizola eta Leizaolarekin batera.

Bigarren lehiaketa hartako txapeldun Txirrita handia izan zen, eta 150 pezeta eman zizkioten saritzat. 100 pezetako bigarren saria, aldi batean Basarriren bertso-lagun izan zen Endoiako Manuel Olaizola *Uztapide* gazteari eman zioten. Hirugarren Zepai izan zen, eta 75 pezeta eman zizkieten. Beste guztiei 25na pezeta eman zizkieten. Eta azkenik, bertsolari zaharrenaren saria Txirritarentzat izan zen, eta gazteenarena, Iriarteri eman zioten.

Bertsolari Egun hauen antolatzaile Donostiako Euskalzaleak elkarteak izan zen, Aitzol buru zuela. Eta berealdiko jendetza bildu zen nola lehenengoan hala bigarrenean ere. Sekulako susperraldia izan zen hura bertsolaritza eta euskararentzat ere. Gero etorri zena etorri zen ordea, eta aldi baterako dena hankaz gora bota eta hondatu zuen gerra madarikatuak.



Gerraosteko txapelketan Mitxelena, Saiburu, Paulo Txikia, Basarri, Uztapide, Ondartza eta Zepai. Tolosan 1945.09.30ean



Uztapide eta Basarri hegoaldeko I Txapelketan. Tolosa 1945.09.30

## Gerraosteko lehiaketak

Gutxitan aipatu izan bada ere, beste txapelketa eta lehiaketa asko egin zen gerraostean, isil-gordeka. Eta Basarrik esku hartu zuen behin baino gehiagotan. Baita irabazi ere, halako batean denak alde batera utzi zituen arte.

Besteren bat ere izango da tartean, behar bada. Baina eskuartean ditugunak hauexek dira: 1945ean Tolosako Leidorren egin zen norgehiagoka hura, adibidez. Eta Uztapide, Zepai, Kortajarena eta aldi hartako beste bertsolari asko mendean hartu eta garaile izan zen. Erraz irabazi zuen, gainera, garaiko kronikak esaten duenez. Handik urte batzuetara, 1949ko azaroaren 20an hain justu, jokoa zegoen irabazlearen txapela, lau mila libera eta kopa ere Basarri eman zizkion epai-mahaiak Urruñan egin zen neurketan. Eta 1950eko urriaren 1ean Donibane Lohitzunen egin zen txapelketako lehen saria ere bereztat izan zen. Baita haren ondoren Donibane Garazin egin zen lehiaketa ere. Iparralde eta hegoaldeko bertsolarientzat 1951ko irailaren 23an Baigorri egindako norgehiagokan Basarri eta Xalbador biak berdin-berdin eman zituen epai-mahaiak, bietatik bat bereizi ezinez. Alabaina, lehiaketa haietako Jakes Legassen kopa galanta Basarri eman zioten, hiru urte jarraian garaile bera izan zela-eta. 1949, 1950 eta 1951n, hain justu ere.

Euskaltzaindiak gerra ondoan 1960an antolatu zuen Euskal Herriko Txapelketa Nagusian

ere Basarri izan zen txapeldun. 1962koan, berriz, Uztapidek irabazi eta eztabaida mingarriak sortu zitzaizkionez, gehiago txapelketatan parterik ez hartzea erabaki zuen Basarrik. Eta muzin egin zien 1965 eta 1967koei.

Hala ere, 1968ko otsailaren 4an eta 11n Donostiako Anoetan egin zen 100.000 pezetako sariketa famatu hartan parte hartu zuen. Eta garaile izan zen 602 punturekin, nahiz eta lehenengo saria Xalbadorrekin erdibanatu behar izan zuen, araudiaren arabera. Egun hartan 598 puntu eman zizkieten Urepelekoari.

Bestalde, ordurarte sekula inoiz izan ziren saririk handienak eskaini zituzten antolatzaileek 68ko hartan, eta arrakasta ona izan zuten.

Baina horrelako neurketetan ohikoa denez, kritika eta esamesa asko izan zen ondorengo



Bertsolariak Anoetan. 1968



Bertsolari eguna Baldan

egunetan. Epai-mahaiak zuhur eta zuzen jokatuko zuen, baina *zenbat buru hainbat aburu* orduan ere. Eta ondorioak ekarri zituen, noski: bertsolari txapelketa eta sariketak hartantxe amaitu ziren, aldi baterako. Ez zen egin beste txapelketarik harik eta 1979 urtean Euskaltzaindiak, ahalegin askoren ondoren, berriro lehiaketak martxan jarri zituen arte.

## Gudari eta ertzain

Gudak inoiz ez du ondoren onik. Eta 1936ko hark eten gogorra ekarri zuen Euskal Herrian. Inazio Eizmendi *Basarri* ere zepoan harrapatu zuen, beste asko bezala.

Abertzalea izaki, bazter batetik bestera ibili behar izan zuen, bere herriaren alde borrokan eta herritik ihesi. Zarate, Bidania, Arraten eta abar, bazterrik bazter ibili zen Loiola batailoian buru eta bihotz sartuta. Eta hala, taldeko mutilik handienak ertzain izateko aukeratzen hasi zirenean, ertzaintzarako hautatu eta hartu zuten, Iñaki Leclerc donostiarra kapitain zuela. Hartarako instrukzioa eta behar ziren ikasketak Bilbon egin zituzten gero. Gudamutil eta ertzain izan zen, bada, bertso-larien txapeldun zen Basarri handia.



Gerta denboran.

Basarri. Ertzain agiria. 1937

Bizkaiko mendietan frentean ibili zen. Eta hila-bete batzuk Arratetik oso hurbil pasatu zituztela kontatu zidan elkarrizketa batean, gerrako kontuak aipatzerik asko gustatzen ez bazitzaion ere. Eta hantxe, tiro artean, *Euzkadi* eta *Eguna* egunkarietarako idazlanak prestatzen zituen, aldi berean. Itxura denez, Basarriren lanek harrera on samarra izaten zuten. Eta artikuluen bila frenteraino etortzen zitzaizkion mezulariak.

Horretarako ofizio onaren jabe izaki, aldian behin bertsoak ere kantatzen zituen Bilboko irratian, frentean zeuden guda-lagunak animatu eta suspertu nahirik. Horietako batzuk 1937ko apirilaren 15eko *Egunak* jaso zituen hain zuzen ere, eta Auspoa sail nagusiko Basarriren bilduman argitaratu zituen gero Antonio Zavalak.

Egoera larri hartan, etsaien ekintza gaizto eta makurrak aipatu eta salatzen zituen, bereziki. Bilboko irratian kantatu zuen bost bertsoko sortari dagokion zati hau adibide ona da, esate baterako:

Egoki asko joka dezute ene Durango aldean,  
meza ematen zeuden apaizak il dituzuten  
uean.

Ainbat aurtxo ta emakume on, amairu moja  
tarteetan.

Etxe illarak txit apurturik antxe goputz, loi  
artean.

Kontu ederra daukazute, bai, Jaungoikoaren  
aurrean...

## Atzerrira, ihesi

Baina Euskal Herriko egoera geroz larritzena-  
go zihoan; eta 1937ko uztailaren 19an nazio-  
nalek Bilbo hartu zutenean, asko eta askok  
Santander aldera ihes egin behar izan zuten.

Baina han ere giro txarra zegoen haientzat,  
bai horixe! Batetik, Santander toki arrotza  
zen iheslari euskaldunentzat, eta ez zituzten  
begi onez ikusten hango bizilagunek.  
Bestetik, gauero-gauero metrailadorearen  
tiro hotsa eta zarata ikaragarria entzuten  
zuten! Eta bere aterpe zen elizatik irteteko  
beldurrez egoten ziren, han pasatu zituzten  
egunetan.

Eta handik ere laster partitu behar, berriz ere  
etsaiarengandik ihesi. Isilka eta larri, ume,  
elbarri eta gaixoak zeramatzan *Sarastone* un-  
tzian sartu, eta Frantziara joan ziren uztail  
triste hartan, eta Nantes ondoko herri txiki  
batean gelditu. Eta gaitzerdi, gainera:  
Landesko baso eta oihanetan lana aurkitu



Ichoux - Landatan. 1938.04.19

zuten, eta basomutil lanari eraso zioten.  
Beharko zerbaiti heldu biziko baziren!

Gero, ondorengo hiru urte handi hantxe,  
«Landesko piñudietan» egin zituzten, etxera  
itzultzeko eguna noizbait etorriko zen espe-  
rantzaz. Bizitza oso gogor egiten zitzairen  
herritik urrun, baina inoiz ez zuten galdu las-  
ter etxeratzeko esperantzatik.

Baiona inguruko hiriburura bildu ziren lotara,  
herritik hurbilago nahi-eta. Baso-lana urruti  
samar egiten zitzairen, baina Euskal Herrian  
bizi ziren behintzat horrela.

Eta garai hartan bertso asko idatzi zuen  
Basarrik. Lagunartean egindako bat-bateko  
hamaikatxo jardunaldi haizeak eramango  
zuen behin betiko. Baina «Landesko piñu arte-  
an», «Frantziko alkate bati», «Euskal misioak  
Ichouxen», «Ichouxko madame Sarteri bio-  
tzez», eta abar ondo jasota gelditu ziren ordu-  
ko egunkari eta aldizkarietan, eta gero  
Antonio Zavalari esker.

«Landesko pinu artean» izeneko bertso sorta  
ederra Ichouxen idatzi zuen, 1938an, taldeko  
«ogei lagun euskaldunen eskariz», berak zioe-  
nez. Eta sei bertsoko sorta hura honelaxe hasi  
zuen:

Euskaldun jaio giñan mundura ta beti euskal-  
dun bizi.

Onak izanda alare begiz askok ezin gu ikusi.  
Pekaturikan baldin badegu lana egitea, noski.  
Españiako odolzaleak nai giñuzean irentsi,  
eta Frantzira etorri bear izan genduan igesi.

## Mugako zepoan

Orain erraz kontatzen dira, baina ez ziren motzak izango atzerriko urte haiek. Izan ere, haien bihotza herri eta etxe-minez irakiten zegoen gau t'egun. Eta, bestalde, gurasoak, senideak, lagunak, denak etxera etortzeko deika. «ama gaixoa etxera etortzeko eta etortzeko ari zitzaidan, gauzak konpondu zirela-eta. Ez zitzaidala ezer pasatuko esaten zidan» kontatzen zuen Basarrik. Horrelaxe uste ama alargunak, eta horrela nahi semeak ere.



Trabajadoreetan bere lagunekin. 1939

Dena dela, 1940ko urria etorri zen, eta arriskatzea erabaki zuten. Baita Irun-Hendaia muga pasatu eta herrirantz abiatu ere, pozez eta beldurrez aldi berean. Baina, amaren ametsak eta semearen usteak, denak ustel. Hendaiaiko zubian bertan hartu eta *trabajadore* eraman zituzten zuzen-zuzenean, erruki handirik gabe. Eta kalbario-bide luze eta gogorrean sartu ziren berriro.

Handik aurrera nondik nora eta nola ibili ziren jakiteko Basarriren bertsoak irakurtzea aski da. Adibidez, Bejar-Salamancan, 1941eko martxoaren 13an ondutako hamahiru bertso soko sorta batetik honatx bat:

Mirandatikan Madrida, eta gero Madritik  
Bejarra,

bagoi zarretan, txerrien gisan, etzan pasio  
ederra!

Erri ontako gure izakera daukat agertu  
beharra:

gose askorik ezta pasatzen, baizik beti bat  
bakarra.

Orain Busturian bizi den Tomas Uriarte eta bere familiari zor diogun Basarriren eskuizkribu batean irakur daitekeenez, abereak baino okerrago erabili zituzten, bazterrik bazter.

Gero, Madriletik Oiartzunera ekarri zituzten atzera, noraezean dabilen artaldea bailiran. *Aitxulegi*-ra, hain zuzen ere. Eta horrela, Euskal Herrian ziren berriro, eta etxetik hurbilago ere bai.

Eta hantxe idatzi eta izenpetu zituen Basarrik bere bertso-lagun Uztapiderekin batera ha- maika aldiz txukun asko kantatu ohi zituen zenbait saio eder: *Nork egin du gure galde?*, *Lesakako festatan* eta abar. Lehenak bezalaxe, hauek ere argitara emanda daude Basarriren *Nere Bordatxotik* liburuan (*Auspoa* sail nagusia- 1992). Bertso horietako asko, eskuz eta letra bikainarekin idatzita utzi zituen Basarrik. Eta Tomas Uriarte lagunak ondo gorde zituen Santimamiñeko (Kortezubi-Bizkaia) *Txukene* baserrian.

Hala ere, ez zen hobea hurrengo saltoa. Izan ere, Euskal Herritik oso urrutira eraman zituzten: Melillako Seghanghara, alajainkoa! Alde batetik, oso urrun zegoen hura eta, bes- tetik, ez dirudi bizitoki berria aurrekoa baino samurragoa zenik. Irakurri, bestela, 1943ko martxoaren 4an bere lagun Tomax Uriarteri

bidali zion gutuna: «Aztu eziñeko Tomax mai- tea: Ona emen lorik gabeko gau amaitu eziñe- ko baten ondoren datozkidan burutapenak. Atzo ere euri eguna genduan eta gure aterpe- an kanpoan bezela egiten duelarik, ez gera geiegi atsedenduak».

Hala ere, bazuen bertso eta olerkiak egiteko hainbat umore. Gutun horrekin batera zortzi ahapaldiko bertso edo olerki sorta bidali zion «esateko» direla adieraziz:

Bijoaz beingoz laiño zakarrok, ta betor zeru argia!  
Ega bitez euskaldun usoñoak. Azka bedi aberria!!!

Ene biotz gaxo zauritua!!! Mintza zaite gaurkoan.  
Adierazi mingotzaldiak zeure izkuntz goxoan.

Gose, egarri, otzaldi, bustiak. Dan danak zure- tzat zeuden.

Ainbat zigor artuta eztakit bizirik nola zauden!





## Berriro etxera

Joanak joan, azkenean libre utzi zuten, horraiti, 1943ko ekainean! Sinestu ezin bazuen ere, San Pelaio festarako bere Zarautz maitera itzuli zen, zazpi urte luzeko amets gaiztoaren ondoren. 1943ko ekainaren 26a egun seinalatu izan zen Basarrentzat.

Eta bakar-bakarrik etorri zen barkuan, bertso kantari, «itsaso aundi artako katxalote eta arraiak entzule nituela pentsatuta», kontatu ohi zuen. Bere denbora guztian ez omen zuen izan huraxe baino poz handiagorik. Zazpi urteko amets gaiztotik askatu eta etxera, eta aske, gainera! Nola sinestu?!



Miren Aginagalderekin ezkondu zen 1945eko urtarrilaren 20an

Lehenengo San Pelaio festak ondo ospatzen saiatu zen eta, gero, Tomax Uriarte adiskideari idatzi zion, ekainaren 29an. Harrigarria da, baina idatzi ere gazteleraz idatzi zion, zehaztasun asko kontatuz. Idatziaren bigarren zatian honelaxe zioen: «de Málaga a Madrid fue un viaje pésimo. Una calor que achicharraba, y en la misma posición que las anchoas en lata [...]».

Beste bitxikeria eta txutxu-mutxu asko ere kontatu zion bere lagunari. Baina, batez ere, inoiz ikusi zuenik Zarautz ederrena aurkitu zuela herrira heldu zenean. Ostatu eta etxe denak udatarrez bete-bete eginda zeudela, eta honi *kaixo* eta hari *agur*, aspertu ezinik zebilela.

Bere gutunetan agur esateko, gehienetan «Jel-baitazko», «Jel'pean», «Jel'en baitan» eta horrelakoak erabiltzeko ohitura zuen Basarrik. Baina ez zion horrelakorik ezer ere jarri gazteleraz egindako karta hartan. Basarriren mezua garbi zegoen, beraz: nola edo hala, gutuna bere lekura hel zedin nahi zuen beste guztien gainetik.



Egunaren sortzaile Basarri, Zubikarai eta Uzturreri gozarre Ajuria-Enean



### **Herriz herri bertsoan**

z zen gaurko egunean dagoen giro eta erraztasunik bertsoarako gerraosteko urte haietan. Kontuak zorrotz eskatzeko nahikoa zen «irabazleen» taldeko edozein kaka-ume. Eta «kontuz ibili adi berriz joan nai ez badek» esan omen zioten behin baino gehiagotan bere herrian. Horrelakoxe giroa zegoen.

Alabaina, bertsolariak behar-beharrezko osagarri izaten ziren herri euskaldun askotako zaindari jaietan. Eta Eusebio Eizmendi *Txapel*, Akilino Izagirre *Zepai*, Paulo Zubiarrain *Hernani Txikia*, Loidisaletxe eta abarrekin etengabe ibili zen, jo batera eta ekin bestaldean. Basarri



Uztapiderekin Arantzazuko saio batean



Oiartzunen Uztapideren omen jaialdi batean

eta Uztapideren txanda eta moda etorri zen 1945etik aurrera, batez ere.

Txirrita eta Gaztelurekin kantatu zuen inoiz. Txapel eta Zepairekin, askotan. Baina Uztapide izan zuen bere bertso-lagunik parekoena, urte askoan. Eta oso ondo konpontzen ziren biok, batek bestea edertu eta osatuz. Gero, artean oso gazteak ziren Manuel



Emile Larre eta Elizalde adi-adi dituela



Zarautzen 1948ko martxoan

Lasarte, Joxe Lizaso, Lazkao Txiki, Mitxelena eta abarrekin ere kantatzen zuen aldian behin. Baina Endoiakoa zen bere egiazko uzta-  
rri-laguna. Herri askotan izaten ziren biok, urtero-urtero: Seguran, Amezketan, Zegaman, Eibarren, Irunen, Erreterian, Berastegin, Azpeitian.

Aspaldi egin nion elkarrizketa batean zera aitortu zidan Basarririk: «Bizi balitz esango lizuke oraindik ere. Lau erri genituen Manuel eta nik urtero bazkaritan langosta ematen zigutenak. Zarauzko estazioan trenea artu eta, Madalenak baziran, Oriora eldu baiño leen esango zuen: “Gogoak al daukak gaur zer bazkari daukagun?”. Ark bazekien langosta jango genuela Erreterian. Gaiñerako errietan ere emale onak ziran, noski».

Nolanahi dela ere, kontu handiz eta hitzak ondo neurtuta kantatu behar izaten zuten. «Bertso borobil eta ateraldirik onenak burura etorri bai, baina kontuz itz egin bear izaten



Bere amaren ondoan, saria hartuta

zan, politikarik-eta aitatu gabe. Gaurko bertsolaritza gauza erreza da ordukoaren aldean. Ez dago eragozpenik, ez dago trabarik. Baina orduan?!» gogoratu ohi zuen.

Baina, hala eta guztiz ere, urte zail eta petrale-tako bertsogintza duintasun handiz bete zuten haiek. Eta gaur eguneko bertso-bide asko urratu eta erraztu zuten, noski. Ez dakit hori inoiz eskertu diegun behar bezala.


## Idazle oparoa

Basarri ez zen izan bertsolari bakarrik. Ez horixe! Idazle eta kazetari ere bazen hura, eta idazle-kazetari euskalduna, herrikoia eta oparoa, goitik beheraino. Euskal Herrian egiten ziren egunkarietan inork aipatu gabe eta bazterturik zegoen hainbat herri-kirol, herrietako festa, bertso-jaialdi eta gertakariaren berri jaso, idatzi eta zabaltzen ahalegindu zen urte askoan. Eta haren milaka idazlan han-hemen-go egunkari eta astekarietan sakabanaturik dago, norbaitek inoiz bildu nahi balitu ere. Gerraurreko *El Día*, *Zeruko Argia*, *Euzkadi*, eta *El Pueblo Vasco* periodikoan askotan idatzi zuen. Lehenengo argitara eman zuen *Dantza nastua* bertso-saioa 1929ko urtean aurkitu dugu, *Ekin*-en. Eta gero, gerraostean, *Euzkadi*,

*Eguna*, *Gudari*, *Euzko Enda*, *Gudari*, *Gure Herria*, *Arantzazu*, *Anaitasuna*, *Zeruko Argia*, *Goiz-Argi*, *Euzko Deya*, *Egan*, *Egin*, *Egan*, *Ekin*, *Tierra Vasca*, *Anaitasuna*, *Herria*, *Agur*, *La Voz de España*, *El Diario Vasco* eta beste herri aldizkari askotan ere badira haren artikulua sakabanatuta: *Arrasate*, *Arnas*, *Beasain*, *Eibar*, *Bidasoa*, *Gernika*, *Izaskun*, *Jaunaren Deia*, *Karmel*... Milaka idazlan, milaka gai eta arazori buruzko artikulua dira. Eta hortxe daude noizbait norbaitek bildu nahi baditu ere. Gehienak euskaraz egin zituen; eta tartean gaztelaniaz, batez ere *La Voz de España* eta *Diario Vasco*-n egin zituenak. Bestalde, Basarri idazlea zela esan dizut. Idazle joria, oparoa. Eta idazle izenaren jabe izateko astekari eta egunkarietan egunero idaztea aski ez balitz, sei bertso-liburu argitaratu



...asko idatzi zuen. Noiz bilduko dira haren lan guztiak?



Luxia eta Gartziazenaren apustuaren berri bertsotan. 1950



Basarriren bertso sorta. 1950

zitzen, gutxienez ere. Kirolzalea izaki, lehenengo liburua *Atano III, bere edestia bertsotan* (Zarauz. Itxaropena, 1949) izan zen. Bigarrena, *Basarriren bertso sorta* (Zarauz. Itxaropena, 1950). Eta handik hamar urtera *Kantari nator* (Zarauz. Itxaropena, 1960), *Laugarren txinpartak* (Auspoa 55-1966), *Sortu zaizkidanak* (Auspoa 112-1973), eta *Kezka-giroan* (Auspoa 169-1983). Egunkari eta astekarrietatik bildutako Basarriren idazlanak bilduta egindako beste liburu bat ere argitaratu zuen Antonio Zavalak: *Bertsolaritzari buruz* (Auspoa 178-1984). Bere izenak dioenez, bertsolaritzari buruz errezildarrak emandako albiste eta iritziak bildu zituen azken liburuki honetan, batez ere.

Eta azkenik, *Nere Bordatxotik* (Auspoa sail nagusia. 92) bilduma argitara eman zuen *Sendoa* argitaldaria. Orain arte inoiz egin den errezildarraren bertso-bildumarik handiena horixe da, noski. Hala ere, A. Zavalak egindako hitzaurreak zerbait esan nahi du, noski: «bi milla eta bosteun bat bertso pillatu ondoren, ortik aurrera liburu batentzat geiegi izango zala eta bilketa lanari utzi egin bear izan diogu» idatzi zuen tolosarrak.

Liburu honetan jasotako bertsorik zaharrenak 1931n egin eta argitara emanak dira, hemezortzi urte zituela egindakoak, hain zuzen. Eta azkenak 1991n argitaratuak. 60 urteko altxorraren zati on bat da, beraz.

## Kazetaritzan

Basarri bertsolariaren xehetasun batzuk oso gainazaletik eman ondoren, haren kazetaritzan lanari begiratu labur bat eman beharko diogu, merezi du-eta.

Han eta hemen azterka ibili ondoren ikusi dugunez, lehenengo bertsoak hamasei urtekin argitaratu zituen Basarrik, *Dantza nas-*



Apustuari adi Donostian 1950.03.05ean



Jose I. Orbeagoz *Arria I* eta Bordarirekin

*tua* (Ekin, 1929) gai hartuta. Eta gero *Euzkadi*, *El Día* eta orduko *Argia* astekarian jarraitu zuen. Bertsoak idazten zituen, batez ere; eta hitz lauz herrietako jaialdi eta festatako kronikak argitaratzen zituen. Bestalde, Jose Maria Arizmendiarieta, Augustin Zubikarai, Uzturre eta beste lagun askorekin batera *Eguna* sortu eta han argitara emateko hamaika artikululu idatzi zuen gerra garaian, abiazioaren marru eta bonba-zaratartean.

Alabaina, gure aldiko egunkarietarako artikululuak egiten hasi, 1946ko udazkenean hasi zen, Donostiako *La Voz de España*-n, Zarauzko berriemaile zen Frantzisko Juaristik «zeozer egin bearko uke» eskatu omen zion-eta. Eta bertsolari zaharren aipamen eta pasadizoak idazten hasi zen, aldizka. 1946ko abenduaren 19an, Donostiako «Santo Tomasko feria txorixua ta ogia» zela-ta, euskaraz eta gaztelerez egin zuen idazlanak harrera ona izan zuen, itxura denez. Eta egunkariko zuzendariak gutun bat baino gehiago hartu bide zuen hasitako bide hura ona zela eta zorionak emanez.

Alabaina, 1946 eta 1947an noizbehinka baka-rrik idazten zuen. Gero, 1948ko ekainean hasi zen egunero-egunero idatzi eta *Mi Atalaya Montañera* biñeta erabiltzen. Eta *Basarri* izena erabiltzen zuen lehenago *Argian* bezalaxe.

Pilota, zezenak, futbola, estropadak, atletismoa, boxeoa eta horrelakoak egunero aipatu ohi zituen lehendik ere aipatu egunkariak. Baina inoiz ez herri txikietako festarik, euskal

giroko jairik, bertso-jaiadirik, herri-kirol, apustu eta horrelakorik. Eta hutsarte horixe beteaz lanean hasteko aukera ikusi zuen. Hala ere, gazteleraz idaztera behartu zuten, lehenengo urteetan.

Aizkolari eta kargajasotzaileen arteko apusturik handienak garaitu hartan jokatu ziren: Arria I, Igartza, Gartziaarena eta Luxia, Arria, Agiñeta, Erramon Astigarraga *Errekalde*, Latasta, Kataolatza... Edota Atxega, Agerre I eta Garatxabal, Soarte, Atxaga eta Manterola, Usategieta, Belaetxe, Ibarbia, Urtain, Artola eta, batez ere, Santos Iriarte *Errekartxo* azpeitiarrak Amezketako *Albizuri-haundi* harriarekin egin zuen apustu gogoangarria (1947ko azaroaren 30ean). Eta bistan zegoen herri-kirolentzat periodikoan tarte eder bat izateko aukera eman ziola kazetari berriari, eta hark ondo baliatzen jakin zuela.

Herri-kirol eta apustuen albisteak eguneroko orrialdeetan ikusita, irakurle asko erakarri zuen, Basarrik. Hala ere, pena bat bazuen, behin baino gehiagotan aitortu zigunez: hain maitea zuen prosan gehiago idatzi ezaren pena, alegia. Santageda, Aitzumarria, Keixeta, Arria, Errekartetxo, Atanotarrak, Gallastegi, Txirrita, Gaztelu, Aitzol, Lizardi, Orixe eta garai hartako kirol, kultura eta plazagizonik ezagunen eta ospetsuenekin harreman zuzena izan zuen. Eta berrogeitaka urtean herriz herri eta plazarik plaza ibiltzeak eman zion

ezaguera eta aukera hori hobeki balia zezakeela uste zuen, gizon handi haien bizitzak eta pasadizoak jaso eta hitz lauan idatziz. Arrazoi ere bazuen, noski. Lan hori nork egin zezakeen hark baino hobeki?

Baina ez zion eman behar adina askatasun eta asti egunero-egunero egunkari eta irratirako idatzi beharrak. Izan ere, lotura gogorra baita eguneroko zereginaren obligazioa! Baina Basarrik egin asko egin zuen, zalantzarik gabe. Nori berea.



Migel Mindegiari txapela janzten. 1983

## **Irratian**

Irrati gizon ere bazen Basarri, bai horixe! Bertsotarako eta idazteko zuen erraztasun eta abileziak aitortu ondoren, plazan nahiz irratiko mikrofonoaren aurrean hitz egiteko zuen etorria eta egokitasuna aipatu behar dira, ezinbestean.

Gerraurrean, gerratean eta gerraostean ere bertsoak kantatu zituen irratiz behin baino gehiagotan. Eta 1949ko udazkenean hasita,



Zutik: Etxebeste, Basarri, Jose L. Rodriguez.  
Eserita: Oñatibia, M<sup>a</sup> Dolores Agirre eta Zurutuza

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntasunez, Jose Artetxe, Beorlegi eta talde batek egiten zuen irratsaioan hitz egin eta kantatu ohi zuen, inoizka. Urte hartako Eguberritan entzun nuen nik lehenengo aldiz irratia, euskaraz.

Alabaina, asteroko irratsaioak egiten hasi 1957an hasi zen Basarri bere herritar Maria Dolores Agirre, Manuel Oñatibia eta Enrike Zurutuza albaitekoak, eta Jose Mari Etxebeste lagun zituela. Irailaren 13an hasi zuten irratsaioa, hain justu ere. Eta «Audición de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián» izenarekin iragartzen zuen Donostiako La Voz de Guipuzcoa irratia, saioa Aurrezki Kutxaren babesean egiten zuten-eta, ostiral arratsetan 20:15etik 21:00etara. Eta ordu horren zain adi egoten zen jende asko ezagutu genuen. Izan ere, perla estimatua zen irratsaio hura, euskaraz besterik egiten ez zen garaian.

*Nere Bordatxotik* atalean Basarriren bertso, kontakizun eta albisteak entzun nahi izaten zituen irratientzule askok. Eta, hiztun egokia izaki, kontatu beharrekoak egoki asko kontatzen zituen, eman nahi zuen mezua erraz, zuzen eta egoki emanaz. Urte askoan jarraitu zuen talde hark irrati-lanean, nahiz eta euskarazko irratigintza ugaldtu zen 1961etik aurrerantzean.



Honaino laburki esandakoa aski ez balitz, berriz, hizlari eta mitinlari egoki eta sutsua ere bazen Basarri. Neurri librean hitzak erri-matuz berriketan hasten zenean, entzulea ahoa bete hortz edukitzen zuen hark, txundituta. Hitz-jario ederrekoa zen, hizlari txukun eta atsegina, txukun eta atsegirik bazan. Hori

bazekien berak ere, eta hitz egiten gozatu egiten zuen eta gozarazi, bide batez.

Hori guztia nolabait eskertzeko-edo, Oho-rezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak 1984ko azaroaren 30ean. Gutxiago merezi zuenen bat izendatuko zuen, seguru asko.



Basarri ohorezko euskaltzain agiria jasotzen Villasanteren eskutik, Foru Aldundian. 1985



Zarauzko udaletxean, bere omenaldikoan. 1985

## ***Azken goralpena***

Bidegilearen aipamenak labur behar du izan-eta, amaitzeko, Joxemari Lertxundi bertsolari eta bertso-jartzaile aiarrak behin bidali zidan bertso-sortatik hauexek gogora ekarri nahi nituzke azkenik.

Saiatu zan Basarri garai gogorretan.  
Gurdirik etzendum ta beti lorretan.  
Zu beti aurreitzai lanbide orretan...

Bertsolaritza dago zurekin zorretan.

Basarriren euskera garbi, aberatsa;  
txukun jorratu eta zainduaz baratza.  
Kenduaz belar txarrak, sasi ta arantza...  
Frituak jasotzeko badet esperantza

Zu zera bertsoaren oiñarri ta abe,  
naiz ori lortzen pasa amaika naigabe.  
Gaur ez giñan izango doai orren jabe  
len zuk eman zenion bultzadarik gabe.

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:*

- *Xabier Eizmendiri (Basarriren semea)*
- *Sendoa argitaletxea*
- *Tomas Uriarte eta familia*
- *Bidegileak bilduma*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2002ko abendua

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.  
Herminio Madinabeitia, 18 - Pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.  
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1861-4 (Lan osoarena)  
84-457-1863-0

L.G.: VI-443/02

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística